



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernanta Departamentua



Open
Government
Partnership



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

KT3 Saiioa

Akta
2022.09.27

MARAKA

Aurkibidea

1. *Parte hartzaileak eta helburuak.*
2. *Saiora sarrera.*
3. *Tresnaren ideia azaldu.*
4. *Printzipioen kontrastea.*
5. *Gidaren prototipoaren kontrastea.*
6. *Sormen ariketa.*
7. *Konpromiso Taldearen saioen plangintza.*
8. *Saioaren itxiera.*

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Bilera: Konpromiso Taldearen hirugarren saioa, KT3.

Data: 2022.09.27

Helburuak:

Hirugarren saioaren helburu nagusiak hurrengoak izan dira:

- Azken Konpromiso Taldeko saiotik **orainarte egin den lana aurkeztu.**
- Arrakala digitalaren inguruko **tresna ko-sortu:**
 - Tresnarako planteatutako **printzipioak, gida eta bere erabilerak kontrastatu.**
 - Orainarte egindako **materialaren gainean sortu.**
 - **Tresnaren ezaugarri desberdinak guztion artean eztabaidatu.**
- Konpromiso Taldearen bostgarren saioa, **KT5, aurrera eramango dela ezagutzera eman.**
- Hurrengo Konpromiso Taldearen **saioen datak gogoraraztea.**

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Parte-hartzaileak:

Bilboko Udala

Amagoia Ibarondo

Gasteizko
Udala

Kotelo

Asociación
de Derecho
Colaborativo

Joanes Alkorta

Gazte
kontseilua

Maialen Olabe

Elhuyar

Amaia Zarrabeitia

Bizkaiko Foru
Aldundia

Elixabete Arriaga
Maria Presa

Donostiako
Udala /
Donostia
Lagunkoia

Eva Salaberria

EMUN

Ainhoa Elices

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Itziar Calvo
Mikel Pagola
Garbiñe Aramendi
Haritz Ugarte

Innobasque


Goizalde Atxutegi

Maraka

Garazi Camino
Joane Bilbao

2. Saiora sarrera.

- **Ongi etorria eman** eta **saioan zer egingo den azaldu** ondoren, hasierako lotsak kendu eta parte-hartzea sustatzeko dinamika bat burutu da. Parte-hartzaile bakoitzak udako oporretan egin duen planik hoberena kontatu behar izan du.
- Dinamikak bere helburua betetzeko balio izan du.



3. Tresnaren ideia azaldu.

Testuinguruaren azalpena:

- Azken Konpomiso Taldeko saiotik **emandako pausoak azaldu dira, partaideak testuinguruan jarriz.**

**Erabili den aurkezpena atxikitzen da..*

Tresnaren azalpena:

- **Tresnarako sortutako lehen prototipoa aurkeztu da:** tresnaren oinarrirako sortutako printzipioak eta gidaren prototipoa.
- Aurkezpen arin bat izan da, testuingurua azaltzeko, **ondorengo dinamiketan tresna taldeka aztertzeko aukera izan baitute.**

**Tresnaren aurkezpena atxikitzen da.*

4. Printzipioen kontrastea.

- OGP III. Konpromisotik sortu behar den **tresnaren kosorkuntza faseko dinamika** bat burutu da.
- Konpromiso taldeko kideek tresnarako sortutako **printzipioak taldeka aztertu dituzte.**
- Aurretiaz diseinatutako txantiloak batzuk erabili dituzte zenbait hausnarketa egin eta eztabaidatzeko.
- Hausnarketak hauek izan dira:
 - **Faltan bota dut... | Sakondu beharko litzateke...**
 - **Soberan dago...**
 - **Oharrak**
- Apuntatutako informazioarekin lagunduz **ideiak amankomunean jarri dira, eztabaida sortuz**, hurrengo orrialdean gehitzen dira aipatutako gaiak.



4. Printzipioen kontrastea

Eztabaidan landutako gaiak:

• Idea orokorrak:

- **Zubiak sortu** behar dira beste proiektu batzuekin.
- **Ikuspegi sistemikoa** garrantzitsua da, erakunde guztiak inplikatu behar dira aldaketa sistemikoa lortzeko.

• Printzipio posibleen hausnarketa:

- **Herritarren aniztasunak** duen garrantzia nabarmendu eta guztien parte-hartzea sustatu.
- **Hizkuntzaren ulergarritasuna** beharrezkoa da.
- **Zerbitzuak intuitiboak eta irisgarriak** izan behar dira.
- **Gardentasuna** proiektu bat arrakala digitalaren ikuspuntutik sortu/diseinatzean, ezarritako helburuen betetzea jarraitzeko.

- **Zerbitzu eta erakunde ezberdinen arteko elkarreragintasuna** kontuan izan behar da arrakala digitalik gabeko gizarte bat sortu nahi bada.
- **Zerbitzuak etengabe egon behar dira testeatzen**, behar berriak identifikatzen, eta haietara egokitzen.
- **Erakundeen barne-beharrak** ere kontuan izan behar dira.
- **Arrakala digitalaren kudeaketa zerbitzuen diseinutik hartu behar da kontuan.**

• Printzipioen atalaren ezaugarriak gidaren barruan:

- **Printzipioak sakonago azaldu** beharko lirateke tresnan.
- **Tresna arina izatea nahi bada beharbada ez dira printzipio posible guztiak azaldu behar**, garrantzitsuenak baino ez.

5. Gidaren prototipoaren kontrastea.

- Konpromiso taldeko kideek tresnarako sortutako **gida taldeka aztertu dute.**
- Aurretiaz diseinatutako txantilo batzuk erabili dituzte zeinbat hausnarketa egin eta eztabaidatzeko.
- Hausnarketak aurreko ariketaren berdinak izan dira:
 - **Faltan bota dut... | Sakondu beharko litzateke...**
 - **Soberan dago...**
 - **Oharrak**
- Apuntatutako informazioarekin lagunduz **ideiak amankomunean jarri dira, eztabaida sortuz**, hurrengo orrialdean gehitzen dira aipatutako gaiak.



5. **Gidaren prototipoaren kontrastea.**

Eztabaidan landutako gaiak:

• Gidaren izaeraren hausnarketa:

- **Tresna oso bisuala eta agila** izan behar da.
- Interesgarria izan daiteke **arrakala digitala ekiditzen ez dugunean zer min eragin dezakegun** azaltzea.
- **Erabilgarria izan behar da edozein erakunderako**, laguntza edo inspirazio modura.
- **Gidaren zati bakoitzaren helburuak ondo zehaztu.**

• Gidaren zatien hausnarketa:

- **Mapatzea berreskuratu**, arrakala mota bakoitzeko adibideren bat emanez edo beraietatik ikasitakoa azalduz, adibidez.
- **Marko juridikoa txertatu**: erreferentziak emanez edo azalpen batekin. Tresna agila izan behar denez nola integratu erabaki behar da.

- **Kultura arrakala** arrakala mota baten moduan integratu.
- **Prozesuaren atalen izenak errebisatu**, batez ere “Proiektuaren definizioa”.
- **Kronograma bat integratu** proiektuen prozesua denbora marra batean dimentsionatzeko.
- **Prozesuaren ebaluazioa** nola egin definitu, adierazleak sortu.
- **Ekosistemaren inguruko hausnarketa** integratu tresna moduan, nahiz eta beharbada gidaren parte ez den izan behar (erakundeak, gizarte ez antolatua, herritarrak).

5. Gidaren prototipoaren kontrastea.

Eztabaidan landutako gaiak:

- Bigarren taldearen gidaren proposamen berria:

- **3 zati** izango ditu proposatutako gidak:

- 1. Sarrera: Zergatik sortu da Tresna? Zertarako? Norentzat?**

- 2. Prozesua: 6 urratsak.**

- 3. 10 galdera orokor arrakala digitalaren ikuspuntua integratu dela egiaztatzeko.**

6. Sormen ariketa.

- Konpromiso taldeko kideek **gidan galdetegi bat integratzea beharrezkoa** dela uste dute, proiektuak eta arrakala digitalak beraietan duten integrazioa ebaluatzeko. Ariketa honekin, **galdetegi hori sortu behar izan dute**, taldeak mantenduz.
- Dinamikan talde bakoitzak saioan zehar planteatutako **galdetegia sortu dute galderak post-iten bidez panel batean jarriz.**



6. Sormen ariketa.

Hausnarketa orokorrak:

- **Prozesuaren inguruko galderak** planteatu dira talde guztietan, nahiz eta **zeharka arrakala motak ere integratu** diren, prozesuan zehar perfil mota guztiak kontuan izan direla bermatzeko.

**Talde bakoitzak planteatutako galderak 14. orritik aurrera daude.*

• Lehenengo taldea:

- **Okaren jolas bat** sortu daiteke galderekin:
 - Jolasak **helburuak markatu** beharko lituzke.
 - **Prosezuaren faseka** funtzionatuko luke (fase bakoitza kolore bat).
 - Fase bakoitzaren amaierako galderen erantzunaren arabera, aurrera jarraitu ahalko litzateke edo fasearen hasierara bueltatu.

• Bigarren taldea:

- **Printzipioen inguruko 10 galdera planteatu** dira, beraien gidaren planteamendu berriarekin jarraituz.

• Hirugarren taldea:

- **Galderak baiezkora** aldatu beharko liratezke.
- **Multikanalitatearen inguruko galderak** klabeak dira.

6. Sormen ariketa.

Taldeka planteatutako galderak:

• Lehenengo taldea:

• 1. Fasea.

- Arrakala desberdinak daudela badakizu?
- Norekin hitz egin behar dut?
- Nolakoa da zure proiektua (zerbitzua, prozesua, ekimena,...) Zein da bere erronka? Arrakalak ekiditea?
- Balio proposamena: Zertarako behar dugu/dute zerbitzu hau? Zer onura ekarriko die?

• Bigarren taldea:

- Kanal guztiak kontuan hartu dituzu? Zeintzuk?
- Kanal desberdinen arteko lotura bermatuta dago?
- Helburuen betetze Maila neurtzeko adierazleak jaso dituzu?
- Arrakala digitalari aurre egiteko beste esperientziak kontuan hartu dituzu?

- Ikuspegi sistemikoa: zerbitzuaren diseinua gainerako erakundeekiko eragingarria da?
- Arrakala desberdinak kontuan hartuta, eta prozesu honetan, kolektibo guztiak kontuan hartu dituzu?
- Zerbitzua irisgarria da hizkuntza eta erabilgarritasunaren ikuspegitik?
- Herritarren behar eta nahiei aurrera egiteko beraiekin diseinatu duzu zure prozesu/zerbitzua?
- Baliabideak: Beharrezko baliabideak aurreikusi dituzu? (Ekonomikoak, pertsonalak, espazioak, kanalak...)
- Diru-laguntza aukerarik duzun aztertu duzu?

6. Sormen ariketa.

Taldea planteatutako galderak:

- **Hirugarren taldea:**

- **Orokorra.**

- Zerbitzuaren hartzaile mota guztiak identifikatu dituzu?
- Hartzaile mota guztiek zerbitzua ezagutzen dutela bermatzeko neurriak hartu dituzu?
- Zerbitzuaren bukaeran, baloratzeko bide bat jarri da?
- Kexak jartzeko bideak jarri dira?
- Zerbitzu horrek besteekin dituen loturak kontuan izan dira? Laguntza beharko luke beste tramite batzuk egiteko?

- **Sarbidea.**

- Neurriak jarri dituzu tresna digitalik ez dituztenentzako?
- Zerbitzua presentziala bada, jarri dituzu baliabideak denok erabili ahal izateko?

- Hartzaileak ulertzeko moduko hizkuntza erabiltzen da?
- Kultura/jatorria: zerbitzuaren hartzaileek erabiltzen dituzten hizkuntzetan eskaintzen da?
- Laguntza jasotzeko bideak aurreikusi/antolatu dira? Komunikatu dira?
- Zerbitzua erraz aurki daiteke?
- Zerbitzua lortzeko eskatzen dudak dokumentazioa behar-beharrezkoa da eskatzeko unean?
- Zerbitzua ikusmen urriko pertsona batek erabili dezake? Zerbitzua entzumen urriko pertsona batek erabili dezake?
- Lurraldeko edozein gunetik zerbitzua erabili ahal izateko neurriak hartu dira?
- Zerbitzuak diseinatzeko orduan erabiltzaileen elkarteak kontuan hartu ditugu? (Emakumeak, adinekoak, ezintasunak dituztenak...)

7. Konpromiso Taldearen saioen plangintza.

Saioen daten gogorazpena

Saioen datak gogorarazi dira, aldaketak eta lekualdaketak

Datak:

- ~~KT1. Saioa: Apirilak 26~~ (*Gipuzkoako Foru Aldundia*)
- ~~KT2. Saioa: Ekainak 14~~ (*Gipuzkoako Foru Aldundia*)
- ~~KT3. Saioa: Irailak 27~~ (*Innobasque*)
- **KT4. Saioa: Abenduak 1** (*Gipuzkoako Foru Aldundia*)
- **KT5. Saioa:** Data jarri behar da oraindik, esango zaizue.

Ordutegia:

- Hurrengo saioa **10:00-etatik 13:00-ra** izango da.

8. Saioaren itxiera.

Saioaren itxiera, hurrengo pausoak eta balorazioa

- **Itxieran hurrengo pausoen errepassoa egin da.**
- **Saioaren baloraziorako dinamika** bat burutu da, banaka bete beharrezko fitxa bat osatuz.
 - Saioaren balorazio positiboa izan da, 1etik 6ra baloratuz batazbesteko 5 puntuko balorazioa izan du.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua



Open
Government
Partnership



OGP
LOCAL
Euskadi



innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Eskerrik asko!

3. Konpromisoaren idazkaritza teknikoa:

MARAKA

www.maraka.co
garazi@maraka.co